



## **LEGE-PROIEKTUA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO KIDEGO ETA ESKALEI BURUZKOA.**

### **ZIOEN AZALPENA**

Administrazio publikoetako langileak dira administrazio horien funtzionamendu egokiaren oinarri eta zerbitzu publikoen kalitatearen bermatzaile. Horregatik, garrantzitsua da enplegatu publikoak antolatzea eta egituratzea, herritarren beharrei erantzungo dien administrazio arrazionala eta eraginkorra lortzeko.

Hasieran, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak kidegoetan bildu zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko funtzionarioak, enplegu publikorako sarbidea antolatu eta funtzionarioen barne-sustapena ahalbidetze aldera. Halaber, lege horretan zehaztu zen zer funtzio zegokion kidego bakoitzari –administrazio-zeregin orokorrak izan edo lanbide jakin baten edo prestakuntza akademiko jakin baten zeregin espezifikoa izan–, eta erabaki zen funtzioak lanpostu-zerrendetan zehaztuko zirela; ondorioz, funtzio publikorako funtsezko osagai bihurtu ziren lanpostu-zerrendak.

Beranduago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeko otsailaren 25eko 1/2004 Legeak “aukera” terminoa ezarri zuen, kidego berezietan sartzeko eskatzen den titulazioa izendatzeko. Kidego berezien funtzioak hauek dira: kasuan kasuko lanpostu-zerrendetan zehazten diren aukerek edo titulazioek zer lanbidetan aritzeko gaikuntza ematen duten, lanbide horri berezkoak zaizkionak.

Otsailaren 25eko 1/2004 Legean, orobat, “eskala” kontzeptua garatu zen kidego berezietarako. Titulazio zehatz eta jakin bat eskatzeko beharrik ez dagoen eremu profesionali aplikatzen zaie kontzeptu hori; hau da, zenbait arlotako profesionalen talde batek betetzeko moduko edukiak dituzten eremu profesionali.

Azkenik, aipatutako legeak “espezialitate” kontzeptua ezarri zuen lanpostu batzuetarako; hain zuzen ere, eduki teknikoa eta berezia izateagatik, dagokien kidego, aukera edo eskalen funtzioak betetzeko beharrezkoa denaz gain espezializazio gehigarria eskatzen duten lanpostuetarako.

Kontuan hartuta harrezkero denbora luzea igaro dela, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritako talde eta azpitaldeetara egokitzeko beharra dagoela, titulazio berriak sortu direla, eta lanpostu jakin batzuen profil profesionala eguneratu egin dela, beharrezkoa da Administraziooko kidego eta eskalen arauketa berri bati ekitea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoak sailkatzeko, bertan sartzeko exijitzen den titulazio-mailari begiratuko zaio, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua agintzen duenari jarraituz.

Kidego orokorrak eta kidego bereziak egongo dira, orain arte bezala. Kidegoen barruan, eskalak sortzen dira, eta bi modutara erabiltzen: batetik, zenbait ikasketa-eremutako titulazioak dituzten profesionalak bete ditzaketen funtzioak biltzeko, eta, bestetik, titulazio ofizial jakin baten berezko funtzioak biltzeko. Ikasketa-eremu esaten zaio ezagutzak partekatzen dituzten unibertsitate-titulazio ofizialen multzoari.

Azkenik, lege honetan jasotzen den “espezialitate” kontzeptua Kidegoak eta Eskalak Antolatzekeo Legean erabili zen modu berean erabiltzen da, eta, orain ere, Gobernu Kontseiluak du ahalmena espezialitateak sortzeko eta espezialitateak lortu edo galtzeko baldintzak ezartzeko.

Bestetik, lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriek euskal administrazio publikoetan aldi baterako enplegua finkatzeko prozesua arautzen dute, aplikazio-eremua Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearenera zabalduz. Bitarteko funtzionarioen tasa handia eta bitarteko langile horiek duten esperientzia kontuan hartuta, urteetan administrazio publikoetan lanean ibili ondoren langile horiek dituzten gaitasun, ezagutza eta esperientzia baloratu behar direla ondorioztatu da.

Hirugarren xedapen gehigarriak agindu bat dakar, lanpostu-zerrendak lege honek xedatutakoari egokitu daitezzen. Bestalde, laugarren xedapen gehigarriak indarrean dauden aldi baterako lan-poltsen integrazioa agintzen du.

Xedapen iragankor bakarrak, berriz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian adierazitako unibertsitate-tituluen indarra mantentzen du.

Xedapen indargabetzaile bakarraren bidez, bertan behera uzten da kidegoak eta eskalak antolatzekeo orain arte indarrean egon den legea.

Azken xedapenetako lehenengoak baimena ematen du lege honen erregelamendu bidezko garapena egiteko, eta bigarrenak, berriz, xedatzen du argitaratu eta sei hilabetera jarriko dela indarrean legea. Azkenik, eranskinean jasotzen da orain arte indarrean egon diren kidego, aukera eta eskalei zein kidego eta eskala berri dagokien.

## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua.- Xedea

Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionarioen kidegoak eta eskalak arautzea.

### 2. artikulua.- Aplikazio-eremua

1. Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionarioei aplikatuko zaie.
2. Lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen aplikazio-eremuan azaltzen diren administrazio publikoei aplikatuko zaizkie.

### 3. artikulua.- Kidegoak eta eskalak

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoak sailkatzeko, bertan sartzeko exijitzen den titulazio-mailari begiratuko zaio, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua agintzen duenari jarraituz.

2.- Kidegoen barruan, kidego orokorrak eta bereziak sailkatzen dira, bete beharreko funtzioen izaera homogeenaren arabera eta funtzionario izateko hautaketa-prozeduretan egiaztatu beharreko konpetentzia, gaitasun eta ezagutza komunaren arabera.

3.- Horrez gainera, kidegoen barruan eskalak egon daitezke, baldin eta bete beharreko funtzioen arabera nahitaezkoa bada titulazio ofizial jakin bat izatea edo zenbait ikasketa-eremuren bidez jakintzagai bat ezagutzea.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionario izateak berekin dakar dagokion hautaketa-prozeduraren deialdian zehaztutako kidegoan eta eskalan sartzea.

### 4. artikulua.- Kidegoetako eta eskaletako espezialitateak

Espezialitateak sortu ahal izango dira, baldin lanpostu jakin batzuen eduki teknikoa eta berezia dela-eta haietan jarduteko baldintza gisa kidego eta eskaletako funtzioen indibidualizazio-maila handiagoa beharrezkoa bada.

## **5. artikulua.- Espezialitateen erregulazioa**

Gobernu Kontseiluaren dekretu bidez sortu, aldatu, elkartu edo ezabatuko dira espezialitateak, eta dekretu horretan ezarriko dira espezialitatearen izena, funtzioak eta hura egiaztatzeko edo galtzeko prozedurak.

## **6. artikulua.- Laguntzako Langileen Talde Profesionala**

Laguntzako Langileen Talde Profesionala sortzen da, zeinean sartzeko ez baita eskatzen hezkuntza-sisteman jasota dauden titulazioetarik bat ere.

## **7. artikulua. Lanpostuak adskribatzea kidegoetara, eskaletara eta Laguntzako Langileen Talde Profesionalera**

1.– Lege honetan arautzen diren kidegoetako, eskaletako eta Laguntzako Langileen Talde Profesionaleko berezko funtzioek ez dute ezein kasutan lanpostu jakin batzuk erreserbatzea ekarriko.

2.– Lanpostuak, haien ezaugarrien arabera, kidego eta eskala batera edo gehiagora edo Laguntzako Langileen Talde Profesionalera adskribatuta egon daitezke. Adskripzioa lanpostu-zerrenden bidez erabakiko da beti.

## **II. KAPITULUA KIDEGOAK ETA ESKALAK**

## **8. artikulua.- Kidego motak**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko kidegoak honela sailkatzen dira:

1. Kidego orokorrak; administrazio-jarduerari lotutako funtzioak betetzen dituzte, hala nola tramitatu, kudeatu, betearazi, aholkatu eta ikuskatu.
2. Kidego bereziak; lanbide edo lanpostu jakin batzuei dagozkien ezagutza espezifikoko behar dituzten funtzioak betetzen dituzte.

## **9. artikulua.- Kidego orokorrak**

Honako hauek dira kidego orokorrak, eta honela sailkatzen dira talde eta azpitaldeetan, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 76. artikuluan arabera:

1. Administrazioiko Goi Mailako Kidegoa: A taldea, A1 azpitaldea.
2. Administrazio Kudeaketako Kidegoa: A taldea, A2 azpitaldea.
3. Administrarien Kidegoa: C taldea, C1 azpitaldea.
4. Administrari Laguntzaileen Kidegoa: C taldea, C2 azpitaldea.
5. Laguntzako Langileen Talde Profesionala.

## **10. artikulua.- Kidego bereziak**

Honako hauek dira kidego bereziak, eta honela sailkatzen dira talde eta azpitaldeetan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 76. artikulua araberan:

1. Fakultatiboen Goi Mailako Kidegoa: A taldea, A1 azpitaldea.
2. Kidego Teknikoa: A taldea, A2 azpitaldea.
3. Laguntzaile Teknikoen Kidegoa: B taldea.

## **11. artikulua.- Kidego orokorren funtzioak**

Hauek dira kidego orokorre dagozkien oinarrizko funtzioak:

1. Administrazioiko Goi Mailako Kidegoari, programazio-, kudeaketa-, betearazpen-, ikuskapen- edo kontrol-arloetan administrazio-jardueran komunak diren goi-mailako azterketa, ordezkaritza, administrazioa, aholkularitza, koordinazioa eta proposamen eta txostenak egitea.
2. Kudeaketako Kidegoari, goi-mailako funtzioekiko lankidetzatza tekniko izatea; araudia aplikatzea; espediente normalizatuak ebazteko proposamenak egitea, eta goi-mailako zereginen ez dagozkien azterketa eta txostenak egitea.
3. Administrarien Kidegoari, goi-mailako funtzioekiko lankidetzatza, prestakuntza, edo haien ondoriozko funtzioak; dokumentazioa egiaztatu, kudeatu, eguneratu eta bideratzea eta bere konplexutasunagatik goi-mailako kidegoei ez dagokien dokumentazioa prestatzea; datuak landu eta administratzea; ondasunen eta materialen inbentarioa egitea; jarduerak ikuskatzea; zeregin ofimatikoak, eskuzkoak zein zenbakizko kalkulukoak, eta jendearentzako informazioa eta arreta ematea.

4. Administrari Laguntzaileen Kidegoari, administrazio-jardueraren arloetan laguntzea; ofimatika eta korrespondentzia; kalkulu sinpleak; dokumentuen transkripzioa eta izapideak; artxibatzea, sailkapena eta erregistroa; jendearentzako arreta eta antzekoak.
5. Laguntzako Langileen Talde Profesionalari, ondasun publikoak zaindu eta gordetzea; bulego edo zentro publikoetan sartzen diren pertsonen kontrola; lokalen kokapenari buruzko informazioa; materiala, altzariak eta instalazioak zaindu, kontrolatu, mantendu eta ikuskatzea; korrespondentzia sailkatu eta banatzea; makina erreproduzitzaileak erabiltzea; dokumentuak, altzariak, materiala eta pertsonak lekualdatzea; jakinarazpenak ematea, eta, oro har, zaintzaile edo atezainen berezko funtzioak.

## **12. artikulua.- Kidego berezien funtzioak**

Hauek dira kidego bereziei dagozkien oinarrizko funtzioak:

1. Fakultatiboen Goi Mailako Kidegoari, berezko ezagutza espezifikoak eskatzen dituzten lanbideei edo lanpostuei dagozkien azterketa, ordezkaritza, administrazioa, aholkularitza eta koordinazioa, eta proposamenak eta txostenak egitea.
2. Kidego Teknikoari, goi-mailako funtzioekiko lankidetzatzen teknikoak izatea, eta araudia aplikatzea, espediente normalizatuak ebazteko proposamenak egitea, eta azterketak eta txostenak egitea, berezko ezagutza espezifikoak eskatzen dituzten lanbide edo lanpostuei dagokienez.
3. Laguntzaile Teknikoen Kidegoari, goi-mailako funtzioekiko lankidetzatzen prestakuntza edo haien ondoriozko funtzioak, eta informazioa kudeatzea, proiektuak lantzea, jarduerak ikuskatzea, dokumentazioa eguneratu eta bideratzea, datuak landu eta administratzea, eta ekipoen eta aplikazioen inbentarioa egitea eta mantentzea, berezko ezagutza espezifikoak eskatzen dituzten lanbide edo lanpostuei dagokienez.

## **13. artikulua.- Kidego orokorretako eskalak**

- A. Kidego orokorren barruan, eskala hauek sortzen dira:
  - a) Administrazioko Goi Mailako Kidegoan, Administrazioko Eskala.
  - b) Administrazio Kudeaketako Kidegoan, Administrazio Kudeaketako Eskala.
  - c) Administrarien Kidegoan, Administrarien Eskala.
  - d) Administrari Laguntzaileen Kidegoan, Administrari Laguntzaileen Eskala.

- B. Kidego orokorretako eskalen oinarrizko funtzioak bat datoz kasuan kasuko kidegoaren oinarrizko funtzioekin.

#### **14. artikulua.- Kidego berezietako eskalak**

1. Kidego berezien barruan, eskala hauek sortzen dira:

A. Fakultatiboen Goi Mailako Kidegoa:

1. Telekomunikazioetako Eskala
2. Meatzeetako Eskala
3. Itsasontzietako Eskala
4. Kartografiako Eskala
5. Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko Eskala
6. Industriako Eskala
7. Azpiegituretako Eskala
8. Medikuntzako Eskala
9. Farmaziako Eskala
10. Albaitaritzako Eskala
11. Eskala Juridikoa
12. Ekonomia eta Enpresako Eskala
13. Informazio Sistemetakoko Eskala
14. Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskala
15. Ingurumeneko Eskala
16. Kultura Administrazioako Eskala
17. Kiroletako Eskala
18. Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskala
19. Arreta Sozioraboreko Eskala
20. Estatistikako eta Datu Analisisetakoko Eskala
21. Larrialdietako eta Meteorologiako Eskala
22. Hizkuntza Normalizazioko Eskala
23. Prentsa eta Argitalpenetakoko Eskala
24. Lan Arriskuen Prebentzioko Eskala
25. Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskala
26. Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskala
27. Laborategiko Eskala
28. Itzulpengintzako Eskala

B. Kidego Teknikoa:

1. Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko Eskala
2. Industriako Eskala
3. Azpiegituretako Eskala
4. Telekomunikazioetako Eskala
5. Meatzeetako Eskala
6. Erizaintzako Eskala
7. Ekonomia eta Enpresako Eskala

8. Estatistikako Eskala
9. Ingurumeneko Eskala
10. Hizkuntza Normalizazioko Eskala
11. Lan Arriskuen Prebentzioko Eskala
12. Informazio Sistemetakoko Eskala
13. Laborategiko Eskala
14. Itzulpengintzako Eskala
15. Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskala
16. Arreta Soziolaboraleko Eskala
17. Larrialdietako eta Meteorologiako Eskala

C. Laguntzaile Teknikoen Kidegoa:

1. Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala
  2. Kudeaketa Informatikako Eskala
  3. Laborategiko eta Osasun eta Ingurumen Ikuskaritzako Eskala
  4. Hazien Eskala
  5. Arrantzako Eskala
2. Kidego berezietako eskalen funtzioak Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez garatuko dira.

## **15. artikulua.- Kidego eta eskaletan sartzeko titulazio-baldintzak**

1. Kidego orokorretako eskaletan sartzeko, ezinbestekoa izango da titulu hauetako bat edukitzea:
  - a) Administrazioko Goi Mailako Kidegoko Administrazioko Eskalan sartzeko: graduko unibertsitate-titulua.
  - b) Administrazio Kudeaketako Kidegoko Administrazio Kudeaketako Eskalan sartzeko: graduko unibertsitate-titulua.
  - c) Administrazioen Kidegoko Administrazioen Eskalan sartzeko: Batxilergoko titulua edo teknikari-titulua.
  - d) Administrazio Laguntzaileen Kidegoko Administrazio Laguntzaileen Eskalan sartzeko: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua.
  - e) Laguntzako Langileen Talde Profesionalean sartzeko: eskola-ziurtagiria edo erregelamendu bidez erabakitzen den gaitasun profesionaleko ziurtagiria.
2. Kidego berezietako eskaletan sartzeko, ezinbestekoa izango da titulazio hauetako bat edukitzea:



- a) Fakultatiboen Goi Mailako Kidegoan sartzeko: lanbidearen edo eskalako lanpostuen berezko zereginetan aritzeko gaikuntza ematen duen graduko unibertsitate-titulua.
  - b) Kidego Teknikoan sartzeko: lanbidearen edo eskalako lanpostuen berezko zereginetan aritzeko gaikuntza ematen duen graduko unibertsitate-titulua.
  - c) Laguntzaile Teknikoen Kidegoan sartzeko: lanbidearen edo eskalako lanpostuen berezko zereginetan aritzeko gaikuntza ematen duen goi-mailako teknikariaren titulua.
3. Lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira kidego berezietako eskaletan sartzeko tituluak biltzen dituzten ikasketa-eremuak.

#### **16. artikulua.- Lanpostu-zerrendak**

1. Lanpostu-zerrenden bidez zehaztuko da funtzionarioei gordetako lanpostuak zein kidegok eta eskalak bete ditzaketen.
2. Lanpostu bat zenbait kidego eta eskalatako funtzionarioek bete badezakete, lanpostu-zerrendetan zehaztuko da zein eskalak izango duen lehentasuna lanpostu horretara iristeko hautaprobeen deialdian.

#### **17. artikulua.- Lehentasunezko eskalak eta bigarren mailakoak**

- 1.-Lehentasunezko eskalatzat hartuko dira behin betiko lanpostuak betetzeko enplegu publikoan sartzeko probak deitzeko baliatzen diren eskalak. Lanpostua eskala bakar batera adskribatuta badago, eskala hori hartuko da lehentasunezkotzat.
2. Bigarren mailako eskalatzat hartuko dira lehentasunezko eskalez gain lanpostuak betetzeko prozesuak antolatzeko baliatzen diren beste guztiak.
3. Lanpostu-zerrenden bidez zehaztuko dira lehentasunezko eskala eta bigarren mailako eskalak.

#### **18. artikulua.- Kidego eta eskala berrietan integratzeko eskakizunak eta integratzearen ondorioak**

1. Dagokion eskalan sartzeko eskatutako titulazioa eduki behar du funtzionarioak, eta eskala horrek nahitaez izan beharko du jatorriko kidegoaren azpitalde eta jatorriko aukera edo eskala berekoa.

2. Kidego eta eskala berrietan integratzeak eten egingo du jatorriko kidego, eskala eta aukerarekiko lotura.
3. Integratzeak ez du inolako ondorio ekonomikorik ekarriko. Funtzionarioak jarraituko du bere lanpostuari esleitu zaizkion ordainsariak jasotzen.
4. Funtzionarioak ez baditu betetzen lege honetan sortzen diren ezein kidego eta eskalatan sartzeko eskakizunak, jatorriko kidego, aukera edo eskalan geldituko da, "desagertzeko" kalifikazioarekin.

### **19. artikulua.- Integratzeko prozedura.**

1. Lege hau argitaratu eta gehienez ere sei hilabetera, prozedura-deialdi bat egingo da, funtzionarioak lege honetan sortzen diren kidego eta eskaletan integra daitezten.
2. Administrazioak proposatuko du funtzionarioek zein kidego eta eskala berrian integratu behar duten, bat etorritik haien jatorriko kidego, aukera eta eskalekin eta, betiere, lege honen eranskinean ezarritako zerrendaren arabera. Bat-etortzerik ez badago, funtzionarioak zein kidego eta eskalatan duen esperientzia handiena, han integra dadin proposatuko da. Bi eskalatan esperientzia bera badu, betetzen ari den lanpostuaren edo azkenekoz bete duen lanpostuaren lehentasunezko eskalan edo bigarren mailako eskalan integratuko da.
3. Nolanahi ere, funtzionarioak Administrazioaren proposamena alda dezake, eta, bere borondatez, hauetako batean integratu:
  - a. Titular den lanpostua adskribatuta dagoen kidego edo eskaletako batean.
  - b. Betetzen ari den lanpostua adskribatuta dagoen kidego edo eskaletako batean.
  - c. Azken hamar urteetan gutxienez bost urteko esperientzia izan duela egiaztatzen duen kidego edo eskaletako batean.
4. Prozedura honetan parte hartzen ez duten langileak Administrazioak proposatutako kidegoan eta eskalan integratuko dira.

## **LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. – Euskal administrazio publikoetan enplegua finkatzeko prozesu berezia.**

1.- Lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, euskal administrazio publikoek, behin bakarrik eta salbuespenez, dagozkien enplegu publikoaren eskaintzak onartu ondoren, deialdia egin dezakete enplegu publikora iristeko hautaketa-prozesuetarako, aurrekontu-zuzkidura duten plazak hornitze aldera kidego, eskala, espezialitate edo kategoria guztietan, nahitaez hartu beharreko neurria baita hori behin-behineko enplegua egiturazko plaza bihurtzeko.

2.- Hautaketa-prozesu horiek bata bestearen ondorengo enplegu publikoaren eskaintzen esparruan garatu beharko dira, eta ezaugarri hauek izango dituzte:

- a) Hautaketa-prozesuak oposizio-lehiaketa moduan gauzatuko dira.
- b) Hautaketa-prozesuek izaera irekia izango dute, eta hau guztia bermatu behar dute: lehia askea, hargatik eragotzi gabe barne-sustapenerako ezarritakoa; ekintza positiboko neurriak, eta Lege honen bigarren xedapen gehigarrian jasotako aurreikuspena.
- c) Irispidea izateko deialdietan, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publikotasunaren printzipioei jarraituko zaie.
- d) Gaitasun-proben edukiak lotura izango du deialdi bakoitzean iragartzen diren lanpostuen ohiko prozedura, ataza eta funtzioekin. Beharrezkoa da oposizio-faseko kasuan kasuko hautaketa-probetako bakoitzean jarritako gutxieneko puntuazioa gainditzea.
- e) Lehiaketa-fasearen balorazioa ez da handiagoa izango hautaketa-prozesuan gehienez atera daitekeen puntuazioaren ehuneko berrogei baino; betiere, kanpoan utzita merezimendu gisa euskarari egiten zaion balorazioa.

Beraz, lehiaketa-fasean esperientzia baloratze aldera, zerbitzu hauek hartuko dira kontuan: edozein administrazio publikotan eman direnak –deialdia egin duen administraziokoak barne– dagokion hautaketa-prozesuaren xedeko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo aurrekoen pareko kategoriei adskribatutako lanpostuetan, zeinahi delarik ere zerbitzaldiaren jatorrian dagoen harremana (funtzionario-harremana edo lan-harremana). Enplegua finkatzeko prozesu

bereziaren ondorioetarako, egiaztatutako esperientziaren modalitate hori esperientzia orokortzat joko da.

Halaber, dagokion merezimendu-baremoan, esperientzia orokorraren baloraziotik bereiz baloratuko dira, modu espezifiko eta osagarrian, deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak, dagokion hautaketa-prozesuan deitutako postuetan jardun izanaren ondoriozkoak.

Balorazio espezifiko horren ondoriozko puntuazioa, esperientzia orokorrarekiko bereizia eta osagarria, sekula ez da izango hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen guztizko puntuazioaren ehuneko hogeitahi baino handiagoa; betiere, kanpoan utzita merezimendu gisa euskararen ezagutzari egiten zaion balorazioa.

Nolanahi ere, esperientziagatik guztira lortuko den puntuazioa honako hauen batura izango da: esperientzia orokorraren ataletan lortutako puntuazioak eta, hala badagokio, deialdia egiten duen administrazioan emandako zerbitzuengatik berariazko esperientziaren puntuazioa.

## **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. – Enplegua finkatzea bitarteko funtzionarioen ehuneko handia duten euskal administrazio publikoetako sailkapen-taldeetan.**

1. Sailkapen-talde eta -azpitaldeetako bitarteko funtzionarioak ehuneko berrogei baino gehiago baldin badira, euskal administrazio publikoek beste irispide-txanda bereizi bat sartu ahal izango diote lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitako enplegua finkatzeko prozesu bereziari.
2. Iripide-txanda bereizi hori ezaugarri eta baldintza hauen arabera eratzen da:
  - a) Iripide-txanda bereizia sailkapen-talde edo -azpitalde jakin bati adskribatutako kidego, eskala, azpieskala, kategoria edo espezialitateei dagozkien hautaketa-prozesuen deialdi guztietan edo batzuetan sartu ahal izango da, baldin eta deialdia egiten duen administrazioaren eremuan ehuneko berrogei baino gehiago badira bitarteko funtzionarioak.
  - b) Txanda honetan parte hartzen dutenek gutxienez zortzi urteko antzintasuna egiaztatu behar dute dagokion hautaketa-prozesuaren barruan iragarritako plazei dagozkien kidego, eskala, azpieskala, kategoria edo espezialitateetan. Antzintasun hori bitarteko funtzionario gisa, aldi baterako langile lan-kontratudun gisa edo epai baten ondoriozko langile lan-kontratudun mugagabe moduan lortu ahal izango da.

Aurreko paragrafoan adierazitako zortzi urteko antzintasuna deialdia egiten duen administrazioko lanpostuetan lan eginez lortua izan behar da, eta, betiere, enplegu publikoaren eskaintza onartu aurrekoa.

- c) Oposizio-faseak proba bakarra izango du, praktikoa, eta deialdi bakoitzeko lanpostuetan ohikoak diren prozedura, ataza eta funtzioei buruzkoa izango da.

Oposizio-faseko proba baztertzailerik izango da, eta, beraz, nahitaezkoa izango da proba hori gainditzea hautaketa-prozesuan parte hartzen jarraitu ahal izateko.

- d) Sarbide-txanda bereizi horretarako, hautaketa-prozesu bakoitzaren barruan eskainitako plazen ehuneko hirurogei arte gorde ahal izango da; betiere, ehuneko berrogei baino gehiago bitarteko funtzionario duen sailkapen-talde edo azpitalde bati lotutako plazak baldin badira.
- e) Lehiaketa-fasearen balorazioa ez da handiagoa izango oposizio-fasean gehienez atera daitekeen puntuazioaren ehuneko berrogeita bost baino; betiere, kanpoan utzita merezimendu gisa euskarari egiten zaion balorazioa.
- f) Halaber, lehiaketa-fase horren barruan, esperientzia osoaren balorazioa ez da handiagoa izango oposizio-fasean gehienez atera daitekeen puntuazioaren ehuneko berrogei baino.
- g) Txanda irekian edo barne-sustapeneko txandan hautatutako izangaiek, destinoak aukeratzeko, lehentasuna izango dute txanda honetan hautatuak izan diren izangaiekiko.
- h) Sarbide-txanda bereizi honetan parte hartzea bateragarria izango da txanda irekian parte hartzearekin. Kasu horretan, izangaiek, txanda irekiaren bidez sartu nahi badu, hautaketa-proba berberak egin beharko ditu, eta txanda horretan parte hartzen duten gainerako izangaien baremoaren menpe egongo da.

3. Xedapen honetako aurreikuspenak langile lan-kontratudunen enplegua finkatzeko ere aplikatuko da.

### **HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Lanpostu-zerrendak egokitzea.**

Lege hau indarrean jarri eta sei hileko epean, Eusko Jaurlaritzak dekretu bat emango du, lanpostu-zerrendetako edukia egokitzeke Legean sortzen diren kidego eta eskaletara.

## **LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Aldi baterako lan-poltsen integrazioa.**

Enplegu publikoaren alorreko eskumena duen sailburuordetzaren ebazpen baten bidez, lege hau indarrean jartzen denean dauden aldi baterako lan-poltsak egokitu egongo dira sortzen diren kidego eta eskala berrietara.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA. - Unibertsitate-titulu ofizialak.**

Oro har, lege honen 15. artikuluan zehaztutako tituluak ezarri bitartean, lege hau indarrean sartu arte indarrean diren unibertsitate-titulu ofizialek baliodunak izaten jarraituko dute bertan sortzen diren kidego eta eskaletan sartzeko.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta geratzen da otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzekoa, eta lege honen aurka doan beste edozein xedapen.

### **AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.- Araugintza-garapena.**

Eusko Jaurlaritzak baimena du lege hau garatu eta ezartzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

### **AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.- Indarrean jartzea.**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta sei hilabete igarota jarriko da indarrean.

XXX XX/XXX, LEAREN ERANSKINA  
OTSAILAREN 25EKO 1/2004 LEGEAN JASOTA ZEUDEN KIDEGOAK ETA ESALAK  
ZER KIDEGO ETA ESKALA DIREN ORAIN



XXX XX/XXX, LEAREN ERANSKINA

OTSAILAREN 25EKO 1/2004 LEGEAN JASOTA ZEUDEN KIDEGOAK ETA ESKALAK ZER KIDEGO ETA ESKALA DIREN ORAIN

**KIDEGOAK/AUKERAK/ESKALAK**

ADMINISTRAZIOKO GOI-MAILAKO KIDEGOA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ARTE

EDERRETAKO LIZENTZIA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ZUZENBIDEKO LIZENTZIA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: FARMAZIAKO

LIZENTZIA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ITSASONTZI-

MAKINETAKO LIZENTZIA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: HISTORIAKO

LIZENTZIA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEDIKUNTZAKO

LIZENTZIA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NAUTIKAKO ETA

ITSAS GARRAIKO LIZENTZIA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ALBAITARITZAKO

LIZENTZIA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ARKITEKTURA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZA-

INGENIARITZA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: BIDE, UBIDE ETA

PORTUEN INGENIARITZA

**KIDEGOAK/ESKALAK**

ADMINISTRAZIOKO GOI-MAILAKO KIDEGOA / ADMINISTRAZIOKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / KULTURA-ADMINISTRAZIOKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / ESKALA JURIDIKOA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / FARMAZIAKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / ITSASONTZIETAKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / KULTURA-

ADMINISTRAZIOKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / MEDIKUNTZAKO

ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / ITSASONTZIETAKO

ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / ALBAITARITZAKO

ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / ERAIKINGINTZA,

HIRIGINTZA ETA LURRALDE-ANTOLAMENDUKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / NEKAZARITZA- ETA

ABELTZAINITZA-SEKTOREKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / AZPIEGITURETAKO

ESKALA



GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZE-INGENIARITZA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MENDI-INGENIARITZA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ONTZIGINTZAKO ETA OZEANOKO INGENIARITZA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: JARDUJERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO LIZENTZIA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: ARTXIBOAK, LIBURUTEGIAK ETA DOKUMENTAZIOA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: INFORMAZIOAREN SISTEMAK ETA TEKNOLOGIAK

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: ITZULPENA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: ESTADISTIKA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: GEODESIA-ETA KARTOGRAFIA-INGENIARITZA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO LIZENTZIA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: AKTUARIOTZA-ETA FINANTZA-ZIENTZIETAKO LIZENTZIA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / INDUSTRIAKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / MEATZEETAKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / NEKAZARITZA- ETA ABELTZAIN-TZA-SEKTOREKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / ITSASONTZIZIETAKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / KIROLETAKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIOKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / INFORMAZIO-SISTEMETAKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / ITZULPENGINTZAKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / ESTADISTIKAKO ETA DATU-ANALISIETAKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / KARTOGRAFIAKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / EKONOMIA ETA ENPRESAKO ESKALA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / EKONOMIA ETA ENPRESAKO ESKALA

**LEGE-PROIEKTUA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidego eta eskalei buruzkoa.





GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: EPIDEMIOLOGIA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: LABORATEGIA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: OSASUN PUBLIKOA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOKO LIZENTZIA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: KAZETARITZAKO LIZENTZIA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: PUBLIZITATEKO ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO LIZENTZIA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: EKONOMIAKO LIZENTZIA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ARTEAREN HISTORIAKO LIZENTZIA  
ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO KIDEGOA  
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ENPRESA-ZIENTZIETAKO DIPLOMA  
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ARKITEKTURA TEKNIKOA  
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: ERIZAINTZAKO DIPLOMA  
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: INFORMAZIOAREN SISTEMAK ETA TEKNOLOGIAK  
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: ITZULPENA  
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA

FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / OSASUN PUBLIKOKO ETA EPIDEMIOLOGIAKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / LABORATEGIKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / OSASUN PUBLIKOKO ETA EPIDEMIOLOGIAKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / EKONOMIA ETA ENPRESAKO ESKALA  
FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA / KULTURA-ADMINISTRAZIOKO ESKALA  
ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO KIDEGOA / ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO ESKALA  
KIDEGO TEKNIKOA / EKONOMIA ETA ENPRESAKO ESKALA  
KIDEGO TEKNIKOA / ERAIKINGINTZA, HIRIGINTZA ETA LURRALDE-ANTOLAMENDUKO ESKALA  
KIDEGO TEKNIKOA / ERIZAINTZAKO ESKALA  
KIDEGO TEKNIKOA / INFORMAZIO-SISTEMETAKO ESKALA  
KIDEGO TEKNIKOA / ITZULPENGINTZAKO ESKALA  
KIDEGO TEKNIKOA / HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOKO ESKALA

**LEGE-PROIEKTUA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko kidego eta eskalei buruzkoa.



ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. ESKALA: ESTADISTIKA	KIDEGO TEKNIKOA / ESTADISTIKAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, INDUSTRIA-KIMIKA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA / INDUSTRIAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZA-INGENIARITZA TEKNIKOA, NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINITZA-USTIATEGIAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA / NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINITZA-SEKTOREKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, ELEKTRIZITATEA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA / INDUSTRIAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, INDUSTRIA-ELEKTRONIKA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA / INDUSTRIAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, MEKANIKA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA / INDUSTRIAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZA-INGENIARITZA TEKNIKOA, NEKAZARITZA- ETA ELIKAGAI-INDUSTRIAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA / NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINITZA-SEKTOREKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZA-INGENIARITZA TEKNIKOA, BARATZEZAINITZA ETA LOREZAINITZA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA / NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINITZA-SEKTOREKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZAKO ERAIKUNTZAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA / AZPIEGITURETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: HERRI-LANETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, ERAIKUNTZA ZIBILAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOA / AZPIEGITURETAKO ESKALA

**LEGE-PROIEKTUA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidego eta eskalei buruzkoa.



ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: HERRI-LANETAKO INGENIARITZA TEKNIKOAK, HIDROLOGIA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOAK / AZPIEGITURETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: HERRI-LANETAKO INGENIARITZA TEKNIKOAK, HIRI-GARRAIO ETA -ZERBITZUAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOAK / AZPIEGITURETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOAK, EHUNGINTZA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOAK / INDUSTRIAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOAK, MEATZEEN USTIAKUNTZA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOAK / MEATZEETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOAK, MEATZEETAKO INSTALAZIO ELEKTROMEKANIKOAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOAK / MEATZEETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOAK, MINERALURGIA ETA METALURGIA ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOAK / MEATZEETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOAK, BALIABIDE ENERGETIKOAK, ERREGAIAK ETA LEHERGAIAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOAK / MEATZEETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOAK, MEATZEETAKO ZUNDAKETAK ETA PROSPEKZIOAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOAK / MEATZEETAKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: BASOGINTZAKO INGENIARITZA TEKNIKOAK, BASO-USTIAPENAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOAK / NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINITZA-SEKTOREKO ESKALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: BASOGINTZAKO INGENIARITZA TEKNIKOAK, BASOGINTZA-INDUSTRIAK ESPEZIALITATEA	KIDEGO TEKNIKOAK / NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINITZA-SEKTOREKO ESKALA

**LEGE-PROIEKTUA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidego eta eskalei buruzkoa.



ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA:  
TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA TEKNIKOAK, SISTEMA  
ELEKTRONIKOAK ESPEZIALITATEA

ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA:  
TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA TEKNIKOAK, TELEKOMUNIKAZIO-  
SISTEMAK ESPEZIALITATEA

ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA:  
TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA TEKNIKOAK, SOINUA ETA IRUDIA  
ESPEZIALITATEA

ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA:  
TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA TEKNIKOAK, TELEMATIKA  
ESPEZIALITATEA

ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA. AUKERA: GESTIOAREN  
INFORMATIKAKO INGENIARITZA TEKNIKOAK

KIDEGO TEKNIKOAK / TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA

KIDEGO TEKNIKOAK / TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA

KIDEGO TEKNIKOAK / TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA

KIDEGO TEKNIKOAK / TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA

KIDEGO TEKNIKOAK / INFORMAZIO-SISTEMETAKO ESKALA

ADMINISTRARIEN KIDEGOA / ADMINISTRARIEN ESKALA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / ARRANTZAKO ESKALA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / LABORATEGIKO ETA  
OSASUN- ETA INGURUMEN-IKUSKARITZAKO ESKALA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / ARRANTZAKO ESKALA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / HAZIEN ESKALA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA:  
ARRANTZA ETA GARRAIKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. ESKALA: LABORATEGIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: ITSASONTZIKO  
MAKINAK ETA INSTALAZIOAK IKUSKATU ETA KONTROLATZEKO GOI-  
MAILAKO TEKNIKARIA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZA ETA  
ABELTZAINZAKO ENPRESEN KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUKO  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

ADMINISTRARIEN KIDEGOA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: ITSAS NABIGAZIO,  
ARRANTZA ETA GARRAIKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. ESKALA: LABORATEGIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: ITSASONTZIKO  
MAKINAK ETA INSTALAZIOAK IKUSKATU ETA KONTROLATZEKO GOI-  
MAILAKO TEKNIKARIA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: NEKAZARITZA ETA  
ABELTZAINZAKO ENPRESEN KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUKO  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

**LEGE-PROIEKTUA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidego eta eskalei buruzkoa.



LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: NATURA- ETA PAISAIA-BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: KIMIKA INDUSTRIALEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: HIRIGINTZA-PROIEKTUEN ETA TOPOGRAFIA-LANEN GARAPENeko GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: ERAIKUNTZA-PROIEKTUEN GARAPENeko ETA APLIKAZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: OBREN PLANAK GAUZATZEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: APLIKAZIO INFORMATIKOAK GARATZEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: SISTEMA INFORMATIKOEN ADMINISTRAZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: DIAGNOSI KLINIKOKO LABORATEGIKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: ANALISIKO ETA KALITATE KONTROLEKO LABORATEGIKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA. AUKERA: INGURUMEN-OSASUNEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOA  
MENDEKOEN KIDEGOA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / HAZIEN ESKALA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / HAZIEN ESKALA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / OBREN ETA INSTALAZIOEN DELINEAZIOKO ESKALA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / LABORATEGIKO ETA OSASUN- ETA INGURUMEN-IKUSKARITZAKO ESKALA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / OBREN ETA INSTALAZIOEN DELINEAZIOKO ESKALA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / OBREN ETA INSTALAZIOEN DELINEAZIOKO ESKALA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / OBREN ETA INSTALAZIOEN DELINEAZIOKO ESKALA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / OBREN ETA INSTALAZIOEN DELINEAZIOKO ESKALA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / KUDEAKETA-INFORMATIKAKO ESKALA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / KUDEAKETA-INFORMATIKAKO ESKALA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / LABORATEGIKO ETA OSASUN- ETA INGURUMEN-IKUSKARITZAKO ESKALA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / LABORATEGIKO ETA OSASUN- ETA INGURUMEN-IKUSKARITZAKO ESKALA  
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA / LABORATEGIKO ETA OSASUN- ETA INGURUMEN-IKUSKARITZAKO ESKALA  
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOA / ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN ESKALA  
LAGUNTZAKO LANGILEEN TALDE PROFESIONALA

**LEGE-PROIEKTUA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidego eta eskalei buruzkoa.